



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2013ko uztailaren 24a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:55

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Elena Etxeberria Sedano zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2013ko ekainaren 6an egindako ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Urtarrilaren 19ko 146/2013 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretua honi buruzkoa da: 1/2013 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua txertatzeko modalitatean.
- 3.- Uztailaren 17ko 336/2013 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretua honi buruzkoa da: 2/2013 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua gaitzeko modalitatean.
- 4.- Berrestea, egoki bada, uztailaren 3ko 306/2013 alkate-dekretua, euskal erakunde publikoetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen UDALHITZ 2008-20010 akordioaren indarraldiari eusteko ituna onartzeari buruzkoa.
- 5.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2012ko aurrekontuaren Kontu Nagusia.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 3/2013 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditu transferentzien modalitatean egina dago.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 4/2013 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 8.- Onartzea, egoki bada, 2009ko ekitaldiko Udal Finantzazio Foru Funtza itzultzea, udal diruzaintzako soberakinaren kargura.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio zentroaren aisialdiko zerbitzuaren gestioaren kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa arautuko duten baldintza juridikoak eta ekonomiko-administratiboak.
- 10.- Onartzea, egoki bada, klausula administratibo partikularren plegua eta baldintza teknikoen plegua, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia eta Orioko ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratua egiteko lanak idazteko eta Udalari aholku emateko zerbitzuaren kontratazioa adjudikatzeko.
- 11.- Onartzea, egoki bada, Orioko herriko jaieguna 2014. urterako.
- 12.- Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2013KO EKAINAREN 6AN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2013ko ekainaren 6an egindako ezohiko bilkurako akta.

2.- URTARRILAREN 19KO 146/2013 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUA HONI BURUZKOA DA: 1/2013 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 1/2013 espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egina dago eta 1.185.459,20 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- UZTAILAREN 17KO 336/2013 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUA HONI BURUZKOA DA: 2/2013 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA GAITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2/2013 espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egina dago eta 24.000 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

4.- BERRESTEA, EGOKI BADA, UZTAILAREN 3KO 306/2013 ALKATE-DEKRETUA, EUSKAL ERAKUNDE PUBLIKOETAKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN UDALHITZ 2008-2010 AKORDIOAREN INDARRALDIARI EUSTEKO ITUNA ONARTZEARI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

BERRESTEA uztailaren 3ko 306/2013 alkate-dekretua, euskal erakunde publikoetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen UDALHITZ 2008-20010 akordioaren indarraldiari eusteko ituna onartzeari buruzkoa.

5.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2012KO AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2012ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeke eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharrak idatziz aurkezteke.

Iragarkia 2013ko ekainaren 12ko GAOn (111. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea eta oharrak aurkezteko epea 2013ko ekainaren 13an hasi zen eta uztailaren 1ean bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharririk aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, informazio publikoaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ)], guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA Udalaren 2012ko aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak eta Orioko Garatzen SL udal sozietate publikoaren aurrekontuak osatzen dutena.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 3/2013 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU TRANSFERENTZIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 3/2013 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 240.163 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko uztailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2013ko aurrekontuari dagokion 3/2013 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 240.163 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) **Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) **Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) **Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) **Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) **Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) **Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 4/2013 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2013 espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 338.907 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko uztailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2013ko aurrekontuari dagokion 4/2013 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 338.907 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2009KO EKITALDIKO UDAL FINANTZAZIO FORU FUNTSA ITZULTZEA, UDAL DIRUZAINZAKO SOBERAKINAREN KARGURA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko uztailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA 2009ko ekitaldiko Udal Finantzazio Foru Funtza itzultzea, udal diruzaintzako soberakinaren kargura. Itzuliko den zenbatekoa 223.696 eurokoa da.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUNKETAKO ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTROAREN AISIALDIKO ZERBITZUAREN GESTIOAREN KONTZESIOA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA JURIDIKOAK ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta honako hau adierazten du: batzorde informatzaile batean diktaminatutako testu bati aldaketak egiten zaizkionean, gaia udalbatzarrera eraman aurretik, beste batzorde informatzaile bat deitu behar da, aldaketa horien berri emateko; Jon Redondok eskatzen du aurrerantzean horrela egitea.

Jon Redondo adierazten du, baita ere, pleguetan kontzesioaren erreskatearen kontzeptua sartu behar dela, erreskatea egin ahal izateko denbora-epe jakin baten barruan eta kontzesiodunak inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko uztailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio zentroaren aisialdiko zerbitzuaren gestioaren kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa arautuko duten baldintza juridikoak eta ekonomiko-administratiboak.



2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 142. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orrien laburpen hau argitaratzen da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

a) **Erakundea:** Orioko Udala.

b) **Espedientea bideratuko duen departamentua:** Idazkaritza-Kontuhartzaitza.

2.- Kontratuaren helburua.

a) **Helburuaren azalpena:** Orioko Udalaren titularitatepekoa den Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroko (OAPTZ) aisialdi zerbitzuak gestionatzea, oinarri juridiko, ekonomiko eta administratiboen arabera.

b) **Exekuzio epea:** 6 urte. Kontratua behin luzatu ahal izango da eta luzapenak bi urteko iraupena izango du gehienez. (Luzapena automatikoki egingo da)

3.- Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era.

a) **Tramitazioa:** Ohikoa.

b) **Prozedura:** Irekia.

c) **Era:** Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren kopurua.

Adjudikaziodunak ordaindu beharreko urteko kanona (BEZa kanpo) ondorengoa izango da:

2013: 2.000€

2014: 6.000€

2015 eta 2016: 14.000€

2017 eta 2018: 16.000€.

Lizitatzailleek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko beren eskaintza ekonomikoetan.

5.- Garantiak.

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren % 5 (BEZ kanpo).



6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7.- Agiriak jasotzeko.

Espedienteko dokumentazioa www.oriola.com orrialdean, kontratistaren profilean.

8.- Eskaintzak aurkezteko.

a) Epea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrerako hogeita hamar egun natural.

b) Aurkeztu behar diren agiriak: baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzaitetzan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.

d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara.

9.- Eskaintzen irekiera.

a) Tokia: Orioko Udaletxea.

b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea bukatzen den astearen hurrengoan egingo da proposamenak irekitzeko ekintza, ostegunean. Egun hori ez bada laneguna udal bulegoetan, ekintza hurrengo lanegunean izango da.

c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA ETA ORIOKO INGURUMEN-ERAGINAREN EBALUAZIO BATERATUA EGITEKO LANAK IDAZTEKO ETA UDALARI AHOLKU EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ADJUDIKATZEKO.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango duela, ez dutelako ikusten, momentu honetan, zerbitzu-kontratu horren lizitazio publikoa egiteko premiarik; horren ordez, proposatzen dute partida horretako dirua udal kiroldetgia hobetzeko eta haurreskola handitzeko lanak egiteko erabiltzea.



Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du zerbitzu horren kontratazioa egokia eta beharrezkoa dela, batetik, egoera ekonomikoa eta soziala aldatu egin delako eta, bestetik, ikusi besterik ez dagoelako zer gertatu den Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren tramitazioarekin eta, ondoren, Hiri Antolamendurako Plan Nagusi gisa egokitzeko prozedurarekin.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko uztailaren 2an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** klausula administratibo partikularren plegua eta baldintza teknikoen plegua, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia eta Orioko ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratua egiteko lanak idazteko eta Udalari aholku emateko zerbitzuaren kontratazioa adjudikatzeko.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 142. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orrien laburpen hau argitaratzen da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

a) **Erakundea:** Orioko Udala.

b) **Espedientea bideratuko duen departamentua:** Idazkaritza-Kontuhartzaitza.

2.- Kontratuaren helburua.

a) **Helburuaren azalpena:** Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren idazketa-lana eta aholkularitza zerbitzuen kontratazioa, oinarri administratibo eta teknikoen arabera.

b) **Exekuzio epea:** 2 urte. Baldintza teknikoen agiriaren 6. klausularen arabera.

3.- Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era.

a) **Tramitazioa:** Ohikoa.

b) **Prozedura:** Irekia.

c) **Era:** Lehiaketa.



4.- Lizitazioaren kopurua.

180.000 € (BEZa kanpo). Lizitatzailleek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko beren eskaintza ekonomikoetan.

5.- Garantiak.

Behin-betikoa: Adjudikazio kopuruaren % 5 (BEZ kanpo).

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7.- Agiriak jasotzeko.

Espedienteko dokumentazioa www.oriora.com orrialdean, kontratistaren profilean.

8.- Eskaintzak aurkezteko.

a) Epea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrerako hogeit hamar egun natural.

b) Aurkeztu behar diren agiriak: baldintza orrietan zehaztutakoak.

c) Aurkezteko tokia: Orioko Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzaitzetan. Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.

d) Aurkezteko orduak: Astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara.

9.- Eskaintzen irekiera: 2. gutunazala.

a) Tokia: Orioko Udaletxea.

b) Eguna: Proposamenak aurkezteko epea bukatzen den astearen hurrengoan egingo da proposamenak irekitzeko ekintza, ostegunean. Egun hori ez bada laneguna udal bulegoetan, ekintza hurrengo lanegunean izango da.

c) Ordua: Eguerdiko 12:00etan.

11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRIKO JAIEGUNA 2014. URTERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko uztailaren 22an emandako diktamena



ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2014. urtean ekainaren 30a izatea, San Pedro bigarrena; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuperatu behar ez dena.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren uztailaren 9ko 381/2013 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez; dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2014. urterako.

12.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jon Agirresarobe zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta, Festa batzordearen buru denez, adierazten du, San Pedro eguna larunbatarekin egokitzen denean, aurtan egokitu den bezala, herriko jaieguna astelehenera pasa daitekeela, eta bertaratuei galdetzen die ea interesik badagoen gai hori aztertzeko.

Noemi Ostolaza zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du Jon Agirresarobek egindako proposamen hori adostu egin beharko litzatekeela, aldez aurretik, San Nikolas arrantzaleen kofradiarekin eta Arkupe dendarien elkartearekin.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Alkate-presidenteak opor onak pasatzea opa die oporrak izateko zortea duten guztiei eta, horrenbestez, bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,